

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2018/11/14

Saila	Laburpena	Erantzuna
Zerbitzuak	Miraflores inguruko auzotar batek arekak gehiago garbitzea eskatu du. Dioenez, egiten den garbiketa ez da nahikoa eta kutxatila eta saretak tratatuta daude.	2018ko abenduan, Miraflores inguruko sastrakak kendu eta arekak garbitu ziren.
Zerbitzuak	Eskatu du Miraflores inguruko arbolak inaustea.	Kimatu ziren.
Udaltzaingoa	Legarregain 11-13ko BOEko etxebizitzetako auzotar batek soluzio bat eskatu du etxe horien espaloian aparkatzen duten ibilgailu-kopurua ikusita, askotan bizilagunak errepidetik ibiltzera behartuta egoten direlako. Eskatu du pibote batzuk jartzeko.	Bolardoak jarri dira kotxeek ez aparkatzeko.
Udaltzaingoa	Legarregain kaleko auzotar batek eskatu du auzoko noranzkoa birplanteatzea.	Auzoko zirkulazioaren noranzkoa auzotarrei egindako inkesta baten ondoren erabaki zen.
Udaltzaingoa	Auzotar batek eskatu du Legarregainen eraikitako pasabide goratuaren kokapena aldatzea eta iturriaren inguruan jartzea. Dioenez, aldapan gora egotera, bisibilitatea oso baxua da.	Oinezkoen pasabide goratua lekuaren punturik garaienean dago kokatua, gidariak oinezkoak ikusi ahal izateko. Lekuz aldatzeak oinezkoen segurtasunaren murrizketa ekarriko luke.
Hirigintza	Arratebideko auzotar batek eskatu du Itzioko parkea txukuntzea.	Itzioko parkea hiri-inguruko parkea da, eta lorezaintza eta hiri-altzariak mantentzeko lanak egiten dira aldian-aldian.
Obrak	Eskatu du espaloi bat egitea Itzioren eta Jardiñetako igogailu berriaren artean, gurpildun aulkien eta umeen kotxetxoaren pasabidea errazteko.	Urbanizatu egin da gunea igogailuaren obrarekin batera.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2018/11/14

Saila	Laburpena	Erantzuna
Obrak	Eskatu du igogailu bat eraikitzea Berdintasunaren Pasealekua Mekolarekin lotzeko.	Hainbat bilera eta azterketa egin ondoren, auzotarrek aukeratu dute dagoeneko zer proiektu nahi duten egitea, eta orain egitasmoa zehazten ari da.
Hirigintza	Informazioa eskatu du Mekolan sortu behar den egonlekuari buruz eta, aldi berean, eskatu du auzotarrek horren inguruan erabaki ahal izatea.	Proiektua idatzi aurreko fasean, hainbat bilera egin dira bizilagunekin, aukerak aztertzeko eta haien iritzia jasotzeko.
Obrak	Auzotar batek eskatu du Mekola eta San Juan kalearen arteko pasealekuaren asfaltatua hobetzea.	Mekola-Arratebide igogailuen lanak egiten direnean eskuhartuko da, materialen sarrera eta irteera hortik egin beharko baita.
Zerbitzuak/ Udaltzaingoa	Kexu da Ardantza eta Itzio inguruan txakur-kakak, zikinkeria eta botiloi-arrastoak egoten direla-eta.	Garbitasun publikoa arautzeko Ordenantza urratzen duten jarduera guztien salaketak jasotzen ditu udaltzaingoa. Halaber, Mankomunitateak igande goizero garbitzen du ingurua.
Obrak	Eskatu du Ardantza hasieran komun publiko bat jartzeko	Sartuta dago igogailuen proiektuan.
Obrak	Auzoko batek salatu du Arretebiden, Itzio parean, errepidea zuloz beteta dagoela eta arriskutsua dela.	Kontu hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegitura Departamentuari jakinarazi zaio.
Obrak	Kexu da Mekola 18A eta 18B zenbakietara ematen duten eskailerak abandonatuta daudela eta leku batzuk solte daudela.	Aurreikusita dago datorren urtean, 2020an, konpontzea.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2018/11/14

Saila	Laburpena	Erantzuna
Udaltzaingoa	Salatu du Arratebide kaletik zer abiadura handian jaisten diren ibilgailuak.	Duela hilabete batzuk abiadura kontrolatzeko radar bat jarri zen eta jasotako datuek ez zuten adierazten ibilgailuak abiadura handiegian zebiltzanik.
Obrak	Auzotar batek dio zailtasunak daudela ibilgailuak Mekola kaletik pasatzeko oso estua delako.	Ez dago aurreikusita kalea zabaltzea epe ertainera.
Zerbitzuak	Eskatu du Arratebide 15ean dagoen piku-arbola bat botatzea.	Kimatu edo botatzeko aukera aztertzen ari dira.
Zerbitzuak	Kexu da Arratebide kaleko 15. zenbaki aurreko haur-jolasen parkea abandonatuta dagoelako. Dioenez, zikin dago, altzariak zaharrak dira, hormak hezetasunez beteta daude eta pintura altxatuta dauka.	Parke horretako haur-jolasak 2019ko martxoan berriztu ziren. Gainera, espazio horren hormak saneatu eta pintatu egin ziren.
Zerbitzuak	Bizilagun batek eskatu du lorean landatzea Arratebide 15ean kokatutako jardineretan.	Joan den otsailean, mantentze-lanak egin ziren jardineran horietan.
Udaltzaingoa	Legarregain kaleko bizilagun batek eskatu du seinalazioa aldatzea, zuzenean sartu ahal izateko saihebidetaren irteeratik.	Saihebidetaren irteeratik Legarregainera joateko sarbidea bakarrik dago baimenduta goranzko noranzkoan dabilzan ibilgailuentzat, alegia, egoitzaren aldetik saihebidetantz. Beheranzko noranzkoan dabilzan ibilgailuen sarbiderako debekua justifikatzen da leku horretan dagoen bisibilitate faltagatik. Baldin beheranzko noranzkoan doan ibilgailuak Legarregainera joan nahiko balu eta goranzko noranzkoan doan ibilgailuarekin topo egingo balu, gelditu egin beharko litzateke bere erreian bestea pasatu arte; eta hori arriskutsua da atzetik datozen ibilgailuentzat, bisibilitate gutxiko bihurtune batetik ateratzen direlako eta atzetik jotzeko

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2018/11/14

Saila	Laburpena	Erantzuna
		arrisku handia dagoelako. Hortaz, ez litzateke komenigarria izango eskatutako maniobra.
Obrak	Eskatu du Legarregaineko bidearen sarrerako espaloia kentzea, gutxi erabiltzen delako eta aparkalekuak egiteko erabil litekeelako.	Ez da egokitzat jotzen espaloia kentzea.
Zerbitzuak	Legarregain 2 zenbakiko auzotar batek salatu du barandaren zati bat ez dela inoiz pintatzen.	Pintatu egin zen baranda.
Hirigintza	Udal laguntzak eskatu ditu igogailu komunitario bat eraikitzeko Legarre 2 zenbakian.	Komunitateko administratzailearekin batera lan egin da, eraikin horretako irisgarritasun-arazoa konpontzeko hainbat aukera aztertuz.  Halaber, lanean ari gara dirulaguntza berri bat sortzeko, espazio publikoak urbanizatzeko obrak gauzatzen laguntzeko, beharrezkoak direnak jabeek sustatutako eraikin pribatuen irisgarritasuna hobetzeko.
Hirigintza	Legarregain 8-ko bizilagun batek salatu du bere eraikinera joateko jabetza pribatu batetik pasatu behar dela.	Legarre auzoko jabetzaren banaketa 1959ko Plan Orokorraren garapenaren emaitza da. Igarotzeko alternatibak daude, eta irisgarritasuna hobetzeko prozesu orokor batean gaude.
Udaltzaingoa	Eskatu du Legarre 8 zenbakiko garajeen irteeran jarri zen isipilua berriro ere jartzea.	Ispilu pribatu bat denez, garajeen jabetzari dagokie hura jarri eta mantentzea.

## HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2018/11/14

Saila	Laburpena	Erantzuna
Alkatetza	Galdetu du ea zer erabilera eman behar zaion Torrekua anbulatorioko eraikinari.	Lokalaren jabetza Udalera pasatu zen joan den urrian. Izapide hori eginda, prozesu parte-hartzaile bat egingo da, beren zerbitzuak eraikin horretan emateko interesa duten enpresek, entitateek edo elkarteek beren zerbitzuak eskain ditzaten. Ondoren, behin betiko baloratu eta erabakiko da zer erabilera eman Torrekuari.
Alkatetza	Galdetu du ea zer unetan dagoen Mekolari dagokion prozesu parte-hartzailea.	Ekitaldi honetan zehar, auzotarrek informazioa jaso izan dute inguru horretako irisgarritasun-planei buruz, bai Alkatetzaren eskutik bai Obra sailaren eskutik. Bizilagunei beste saio batera deitu zaie urriaren 14rako; bertan azken planteamenduen berri emango zaie, 6 proposamenetan oinarritua.
Obrak	Bizilagun batek salatu du Mekolako parkean botiloia egiten dela eta, horregatik, eskatu du banku moduan erabiltzen diren jardinerak kentzeko, gazteak han jartzea saihesteko.	Gaia gehiago da ordena publikokoa. Jardinerak kentzeak ez du bermatzen boteiloirik ez egitea.
Hirigintza	Eskatu du hesiekin ixteko Ardantzako etxeen izkina, hor ere botiloiak egiten direlako.	Hirigintza Batzordean, gai hori aztertu dute eta erabaki da inguruaren kalitaterako garrantzitsua dela arkupeak mantentzea. Halaber, gunea kontrolatzeko neurri osagarriak hartu ditu Udaltzaingoak.
Zerbitzuak	Ardantzako bizilagun batek salatu du etxebizitzaren ostean zabor-poltsak daudela aspalditik jaso barik.	Gune ez-irisgarria denez, kale-garbitzaileek ez dute ohiko garbiketarik egiten. Garbiketa hori mendi-mazelaren sastrakak garbitzearekin batera egiten da, eta urtean bi aldiz egiten da.

# HERRITARREN PARTE-HARTZEA

AUZO-BILERA: Legarre

DATA: 2018/11/14

Saila	Laburpena	Erantzuna
Obrak	Mekola 6 zenbakiko bizilagun batek galdetu Mekola inguruko irisgarritasun- eta urbanizazio-proiektuari buruz.	Hainbat bilera eta azterketa egin ondoren, auzotarrek aukeratu dute dagoeneko zer proiektu nahi duten egitea, eta orain egitasmoa zehazten ari da.
Hirigintza	Informazioa eskatu du bizilagunen komunitateetan igogailuak jartzeko ematen diren dirulaguntzen inguruan.	Laguntza horiei buruzko informazioa Udalaren webgunean dago ( <a href="http://www.eibar.eus">www.eibar.eus</a> ), eta interesa duten komunitateei Hirigintza Sailera hurbiltzeko gonbitea egiten diegu, informazioa modu zuzenagoan bidaltzeko.